

# iruner

196. zenbakia. 2011ko uztaila



**Lohitzune  
Txarola:  
Batzar  
Nagusietako  
presidentea,  
aurrez aurre**



**Alardeak 2011**



## **SURF TIME**

**Mario Azurzak Txingudi TBren saio berria aurkezten du**

# Olaizola

Beraketa kalea, 17  
20302 IRUN  
Tel: 943 62 65 85  
API 316

**Inmobiliaria  
agentzia**

**Salmenta  
Al okairuak  
Promozio berriak  
Aholkularitza**

[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)

---

Zer egin behar da Gipuzkoa TB  
Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?



29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitezharremanetan antena instalatzailearen batekin.

# Laguntzaileak



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

## Aurkibidea

### 4.- *Lapikoan*

- Gazte Antzerkiaren Jaialdia
- Lohitzune Txarola Batzar Nagusietako presidentea, aurrez aurre
- Ana Galdos XVI. mendeko Irunen murgildu da

### 14.- *Kirolak.*

- *Surf Time*: Surfa Txingudi TBn
- *Olatu gainean*: estropada sasoia Txingudi TBn

### 15.- *Alarde tradizionaleko argazkiak*

### 18.- *Alarde publikoko argazkiak*

### 19.- *Bi hitzetan*: Berri laburrak.

### 24.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa*

Frustrazioa .

### 26.- *Eleak iruten.*

### 27.- *Lerroz lerro.* Karlos Gorrindo *Ez dena ere bada*

### 28.- *Kultur Agenda:*

### 30.- *Gazte Informazioa*

# irunero

**Helbidea:** Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78.

Faxa: 943 63 18 77

[irunero@infotxingudi.com](mailto:irunero@infotxingudi.com)

[www.infotxingudi.com](http://www.infotxingudi.com)

**Argitaratzailea:** TB S.L.

**Erredakzioa**

**maketazioa:** Ana Grijalba.

**Kolaboratzailea:**

Mikel Asurmendi

**Zuzentzailea:**

Xabier Kerexeta.

**Inprimategia:** Antza

**Tirada:** 3.500 ale

**Lege gordailua:** SS-230-94

**ISSN:** 1134-0606

# Antzerkia kalera aterako da uztailaren 11tik 17ra

**U**ztailak udako kultur ekintza nagusietako bat ekarriko digu: Gazte Antzerkiaren XXVII. Jaialdia, Irungo Udalak Ipso Facto Antzerki Pobrearen Elkartearekin batera antolatuta.

Guztira, programa ofizialean 14 konpainiak parte hartuko dute eta, iaz bezala, Umorezko Bakarriketa Jaialdiak burutuko du. Aurten ere kalera aterako da antzerkia. Zabaltza plaza eta bertako karpa izango dira agertoki nagusiak; baina, aldi berean, programazio osagarriari esker, gazteen ikuskizunak auzoetara eramango dira. Azkenik, Amaia KZn antzeztuko da obretako bat.

Gainera, jendearen parte-hartzea bultzatzeko hainbat jarduera izango dira. Break dantza Master Class bat prestatu da Fama 5 saioko Imanol Pesorekin. Halaber, txotxongilo tailer bat antolatu da. Amaiaiko ikuskizun bakarrak 5 euro balio du, eta gainontzekoak doan izango dira.



XXVII. edizioko kartela

## PROGRAMAZIOA

11-12-13	Osteguna 14	Ostirala 15	Larunbata 16	Igandea 17
20:00etan <b>KALE ANTZERKIA auzoetan</b>  TATXIN TATXAN Sointek Produkzioak <b>Uztailak 11:</b> Antzaran <b>Uztailak 12:</b> Urdanibia Berri <b>Uztailak 13:</b> Behobia  VAYA CIRCO Circobaya <b>Uztailak 11:</b> Katea-Ventas <b>Uztailak 12:</b> Santiago <b>Uztailak 13:</b> Pio XII plaza	11:00etan <b>KARPAN HAUR TAILERRAK</b> Txotxongiloak Patata Tropikala	11:00etan <b>KARPAN MASTER CLASS</b> Imanol Peso Fama 2011	11:00etan <b>KARPAN MASTER CLASS</b> Imanol Peso Fama 2011 12:30ean <b>KARPAN MUSIKALAK</b> Danza Tatiana eta Toxic	
	18:00 <b>KARPAN</b> Zapata Gorriak Patata Tropikala	20:00etan <b>KARPAN LOS SUSTITUTOS</b> Ni un palo al arte	13:00etan <b>ZABALTZAN</b> Otiacicoch Oihulari Clown	19:00etan <b>PIO XII</b> Más que vecinos Ipso Facto
	20:00 <b>ZABALTZAN</b> Chaussée interdit aux piétons Macadames		18:00etan <b>KARPAN</b> El Kiosko Ezezagunok	
		21:30 <b>STREET END</b> Bakarrizketa Jaialdiaren finalerdiak	21:30 <b>STREET END</b> Bakarrizketa Jaialdiaren finalerdiak	21:30ean <b>ZABALTZAN</b> Éxodo En La Lona
	24:00 <b>KARPAN</b> Tenemos que hablar Monstrenko	24:00 <b>KARPAN</b> Baginaren bakarrizketak Txalo	23:00etan <b>KARPAN</b> Bakarrizketa Jaialdiaren finala	

## Umorezko Bakarrizketa Jaialdia

Bakarrizketa Lehiaketan 12 pertsonak parte hartuko dute. Finalerdiak Street End Pub-ean izango dira, uztailaren 14an eta 15ean, eta finala Zabaltza plazaren karpán hilaren 16an. Joan den urtean, lehen edizioa arrakasta handiarekin egin zela adierazi zuen Cristina Laborda Gazteriako ordezkariak. "Horregatik uste dugu formula egokia dela, parte-hartzaile asko erakartzen dituelako eta adin guztietako publikoari gustatzen zaiolako".



Lohitzune Txarola, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea eta Bilduko Irungo zinegotzia.

“Irun Gipuzkoako bigarren hiria denez, Aldundiak dagokion garrantzia eman behar dio”



Donibane Lohitzunen sortua, Hendaian hazia, Irunen errotu zituen bere gizarte-harremanak. Zuzenbidean lizentziaduna eta EAko militantea. Bruselan ekin zion lanari, Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritzan. Europako hiriburuan Mikel Irujo eurolegebiltzarkidearen aholkulari ibili zen ondoren. Azkenik, aurreko legealdian Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako zuzendaria izan zen.

- Nolako izaerakoa zara?

Pertsona kementsua naiz, eta kaskagorra zentzu positiboan; alegia, zerbait lortu nahi badut horretan jartzen dut indar eta gogo guztia. Jakin-min handikoa ere banaiz; gauza berriak ikastea gustuko dut. Ezkortasun puntu bat daukat.

- Mugaz gaindiko hiritarra zara eta ele-aniztuna. Ezaugarri horiek markatu zaituzte?

Nik baietz uste dut. Bruselan Nazioarteko Harremanen inguruko masterra egin nuen. Oso gustuko dut gai hori. Irekia naiz eta elkarriketa atsegina dut; hau da, diferentzietatik adostasuna lortzea. Ezaugarri horiek presidente izateko onak direla uste dut.

- Batzar Nagusietako mahaikide izatera alderdi guztiak gonbidatu zenituen. Hori al da zure estiloa?

Mahaia organo oso instituzionala da, horregatik ordezkariak neutrala izan zedila lortzea oso garrantzizkoa zen. Hasiera hau nire estiloaren berezitasuna da. Elkarriketa funtsezkoa izango da, ez baitugu gehiengoa; baina hitz egiteko borondatea ez dago soilik gure esku.

- Erakundearen ordezkari lana egitea dagokizu. Mugak jarriko dizkiozu?

Ez. Beste kontu bat da zer muga jarriko diguten. Argitu nahi dut berriki eman diren Jose Luis Korta Sariak direla-eta gertatutakoa: Gipuzkoako erakundeetako ordezkariak ez zen bertaratu gonbidapenik jaso ez guelako.

- Lau urte barru nolako Gipuzkoa ikusi nahi zenuke?

Gipuzkoa triste ikusten dut, batez ere krisiaren-gatik. Lau urte barru kinka honetatik atera izana eta Gipuzkoa berpiztuta ikustea espero dut.

- Zein izango dira Bilduk hartuko dituen neurri nagusiak?

Politika soziala indartu behar da, bankuek kolaboratu behar dute eta fiskalitatea berrikusi behar da. Proiektu batzuk ez dira beharrezkoak, adibidez, Pasaiaiko kanpo-portua; horren ordean, gaur egungo portua berpiztearen alde gaude.

- Zer iritzi duzu aurreko Foru Aldundiak Irunen egin nahi zituen inbertsioez?Esaterako, trenaren espazioaren birmoldaketa edo N-1 zabaltzea.

Irun Gipuzkoako bigarren hiria denez, Foru Aldundiak dagokion garrantzia eman behar dio. Trenaren espazioa birmoldatzeko, Aldundiak ez luke zertan oztoporik jarri beharko. N-1 errepi-dearen proiektua egin behar bat da. Egitasmoa itxita badago ez dut uste mugituko dugunik.

- Irungo Udalean PSE-EE da nagusi.Harremanetarako oztopo izan liteke?

Nik uste dut harremanak onak izan daitezkeela. Bi erakundeak irundarren interesen alde lanean ari gara.

- Donostia Kulturaren EuropakoHiriburua mugaz gaindiko proiektua da.Zer ekarriko dio Iruni?

Irun eurohiriaren erdian dago. Berez, nik uste dut gure hiriak protagonismoa edukiko duela. Oso garrantzizkoa eta aberasgarria izango da gipuzkoarrentzat.

- Batzar Nagusien lana ezezaguna dahiritarren artean. Zer egingo duzuzabaltzeko?

Argi daukat lehenengo neurria Batzar Nagusiak herrietan bilerak egitea izango dela. Erakunde honen zereginak berebiziko garrantzia duela jakinarazi behar dugu. Kontu egin: gehiengoa ez dugunez, oposizioak proiektuak geldiaraz ditzake.

EAJk Gipuzkoa gobernatu duenean Foru Aldundiaren lanari publikoki pisu handia ematea interesatzen zitzaion, eta ez Batzar Nagusietakoenari.

# XVI. mendeko Irunen barrena Ana Galdosen eskutik



Ana Galdos historialaria, Jose Antonio Santano alkatea eta Jose Monje udal artxibozaina.

XVI. mendeko Iruni buruzko informazio gutxi zegoelako erabaki zuen Ana Galdosek historiako garai hura ikertzeko Serapio Mugica Bekara aurkeztea. Lau urtez 900 dokumentu aztertu eta interpretatu ostean, Irungo Udalak liburuki batean argitara eman du emaitza, *Irunek badu Historia* bildumaren barruan.

Aldaketa sakonen mende hura argiztatu duen ikerlan bikaina da.



*Irun en el siglo XVI: Una interpretación histórica a partir de un catálogo documental* izenburuko liburukia joan den ekainaren 13an aurkeztu zuten Ana Galdos Monfort egileak, Jose Antonio Santano Irungo alkateak eta Jose Monge udal artxibozainak.


### Herrixkatik hirira

Ana Galdos Bartzelonan jaio zen, baina Irunen burutu du bere ikerlari lan guztia. Azterlana zein garaitan kokatuko zuen erabakitzeke orduan, ikasketaz arkeologo izateak denboran ahalik eta gehien atzera jotzera bultzatu zuen. Iraganean murgiltzeko prozesu horretan XVI. menderaino iritsi eta hortik bidea jorratzeari lotu zitzaion, artxiboak eratu ziren garaia baita. Lana bi zati nagusitan banatuta dago: bata aztertutako 900dik gora dokumentuen katalogoa da, etorkizunean ikerlariak erabil dezaten materiala izateko xedez landua.

Bigarren zatia narrazio historikoari dagokio, “non alderdi sozialei pisu handia eman die-dan”, zehaztu zuen Ana Galdosek. Egilearen hitzetan, XVI. mendeko Irungo historiaren norabidea Hondarribiaren jurisdikziopean egoteak ekartzen zituen botere-tirabirak markatu zuen. “Baina, aldi berean, eta hala ez badirudi ere, Irunek zenbait aldaketa izan zituen, Erdi Arotik Aro Modernorako transizioaren barruan kokatu behar direnak. Aldaketa horiek herrixka izatetik hiri bilakatzea ahalbidetu zuten, baita garapen ekonomikoa eta demografikoa ere, gerora Hondarribiarekiko menpekotasuna hausteko baliagarri gertatu zitzaizkionak”.

### Eliza, Kontzejuua eta gizartea

2.500 biztanle zituen herri hartako elizaren, Kontzejuaren eta gizartearen transformazioa atal banatan jorratutako gaiak dira. Horietan hainbat galderari erantzuten zaie. Zergatik handitu zen eliza? Irungo Andre Mariari zergatik hasi zitzaion deitzen Junkaleko Ama? Zer dela eta hasi ziren idazten agintarien erabakiak? Zein izan zen herrixka hura hainbeste hazteko arrazoia? Zergatik sortu ziren lanbide berriak? Ana Galdosek liburuan ondoriozta-



Bidasoa ibaia 1634ko dokumentu batean.

tzen du aldaketen zergatia gure hiria antzinako eredu sozial eta kulturalak egitura politiko eta erlijioso berriari egokitzean bilatu behar dela.

### Azterlan bikaina

Aurkezpen ekitaldian alkateak gogora ekarri zuen Serapio Mugica Bekaren helburua herritarren artean gure historia zabaltzea dela. Halaber, Udal artxiboko beka honen harira, dagoeneko bederatzi liburuki plazaratu direla esan zuen, baita Udalak bide horretatik jarraitzeko borondatea duela iragarri ere.

Jose Monje artxibozainaren iritziz, ikerlana “sorpresa oso atsegina izan da, emaitza bikaina izan baita”. “Ez da datu bilketa soil, baizik eta informazio gutxi genuen kontzejuari eta XVI. mendeko Irungo gizarteari buruzko interpretazioa egin du; hain zuzen, orain arte nahikoa ezezaguna zen garai bati buruzkoa”.

Ana Galdosek Udalarri eskertu zion emandako finantzazioa; artxibozainari, dokumentuen kontserbazioa, eta UPV-EHUKo Jose Antonio Munitari, ikerlana zuzendu izana.

# Surf Time

Surfari buruzko  
saio freskoa  
Txingudi TBren  
eskutik,  
Mario Azurzak  
aurkeztuta



Mario Azurza

Txingudi TBk  
Euskadiko  
surfaren mundua  
erakutsiko du  
asteazkenero uztailen  
eta abuztuan zehar,  
22:00etan. Mario  
Azurza surflari  
zarautarrak  
aurkeztuko du.

Mario Azurzak, 6 urte zituela, kortxo baten gainera igo eta olatuen gandarretan dantzarazi zuen. Orduetik, lehorreratzen den unean hurrengo dantzaldia hasteko irrikak barneak astintzen dizkio.

Europako Junior Zirkuituan parte hartu zuen, Hawaiiko uretan ere zilipurdika ibili da eta, jakina, Euskadiko hondartzetako olatuak mendean hartuta dauzka. Txantxalaria, irekia, xaloa. Bere blogak 200.000 bisitara ere iritsi da. Euskadi osora hedatuko den surfari buruzko saioa aurkezteko eskaintza jaso zuenean, ezbairik gabe onartu zuen. Emaidza programa freskoa, dinamikoa da, non bat-batekotanak izaera propioa ematen dion.

Errepikapenak astelehenetan, ostiraletan eta igandetan, 23:00etan.



### Zer iruditu zitzaizun saioa aurkezteko proposamena?

Beloki nirekin harremanetan jarri zen. Ni eza-gutu ninduenean, kamara aurreko lana egiteko gaitasuna neukala iruditu zitzaioan eta, halaxe, proposatu egin zidan. Nik aisa baietz esaten duten horietakoa naizenez, bada, korapilo honetan sartu naiz. Gainera, gustuko izateaz bestalde, marka babesleak ditudanez, komeni zait.

### - Zer ikusi ahal izango da Surf Time saioan?

Zortzi saio prestatuko ditugu, Euskadiko beste horrenbeste hondartzatan grabatutakoak. Bertan surflari ezagun nahiz ezezagunak agertuko dira. Surfa egiteko aukeratu ditugun gunen horien inguruko kontuen berri emango dugu: gertatzen dena eta giroa islatuko ditugu. Aldi

berean gazteak surfera erakarri nahi genituzke, jarduera sana eta gozagarri den heinean.

### - Surflariei ez ezik, edonori entretenigarri izango zaion produktua al da?

Bai, ikusle gazteei bereziki zuzendutakoa da; baina formatua oso arina izango denez, bada, edonori erakargarri gertatu ahal zaiola uste dut. *Callejeros* famaturaren ildo jarraitu dugu, saio fresko eta dibertigarria egiteko, non bat-batekotasuna osagaietako bat den.

### - Zein da surfaren osasuna?

Moda-modako kirola da: gero eta surflari nahiz surf eskola gehiago daude. Alderdi txarra, izatekotan, masifikatzeko bidean dagoen kirola dela esango nuke.

### - Zer da surfa zuretzat?

Bizitza osoa eman dut surfean. Bizimodu bat dela esango nuke

# *Estropadak, lehen ilaratik Txingudi TBn*

Imanol Arruti gipuzkoar kazetariak Txingudi TBko *Olatu Gainean* saioan arraunaren inguruko berri guztiak ematen ditu asteartero 21:00etan. Emanaldien errepikapenak asteazkenetan 15:30ean, eta ostegun eta ostiraletan 21:00etan hedatzen dira.



**T**raineru sasoi guztian zehar Gipuzkoa TB-Txingudi Telebistak arraunaren inguruko programa berezia eskainiko du asteartero, 21:30ean, Imanol Arruti kazetariak aurkeztu eta zuzenduta. Gaur egun Onda Vasca-ko kirol alorreko eskarmentu handiko langilea da, eta telebistarako lanak egin izan

ditu. Arrauna arras ongi ezagutzen duen kirola da. Estropaden zuzeneko emanaldietan aritutakoa ere bada. Aurkezle gisa, ordea, *Olatu Gainean* izango du estraineko esperientzia. “Txikitatik arraunaren munduaz izugarri gozatu dudalako, telebistako saio honen lema gidatzeko eskaintza egin zidatenean ez nuen



Imanol Arruti

## Parte-hartzaileak

- |               |             |
|---------------|-------------|
| - Astillero   | - Pedreña   |
| - Camargo     | - San Juan  |
| - Castro      | - San Pedro |
| - Hondarribia | - Tiran     |
| - Kaiku       | - Urdaibai  |
| - Orio        | - Zumaia    |

zalantzarik egin”, adierazi du Imanolek. Profesional honek erronka polita du aurrean astean behin ordubete iraungo duen emanaldia apailatzeko. Zeregin horretan kolaboratzaile zenbait izango ditu, Ion Otxoa eta Oscar Ortiz de Ginea adituak, besteak beste.

### Emanaldiaren atalak

*Olatu Gainean* batik bat lehiaketa nagusia, alegia, San Miguel Liga izango du hizpide. Lehenbizi, aurreko asteburuko estropaden laburpena eskainiko da. Ondoren, tertuliaren txanda helduko da, berriak zehatzago aztertu aldera eta, jarraian, hurrengo norgehiagokaren inguruko aurreikuspenak eskainiko dira.

## San Miguel Ligaren egutegia

VII Bandera Marina Cudeyo - GP Dynasol	Pedreña	7-16
XLII Bandera Ciudad de Santander	Santander	7-17
Pasaiako Portu Berriaren Bandera	Pasai San Pedro	7-23
IV Bandera Ambilamp	Portugalete	7-24
Getxoko Estropaden XXXIII Ikurriña	Getxo	7-30
Zumaiaiko XXVI Ikurriña	Zumaia	7-31
Zarauzko XXXIV Estropadak J1	Zarautz	8-13
Zarauzko XXXIV Estropadak J2	Zarautz	8-14
Hondarribiko XXIV Ikurriña-GP Mapfre	Hondarribia	8-20
II Bandera Iberdrola	Pasai Donibane	8-21
XXI Orioko Estropadak - XIV Inmobiliaria Orio Ikurriña	Orio	8-27
XIII Bandera Flaviobriga	Castro Urdiales	8-28
Play Off J1	Bermeo	9-17
Bermeo Hiriko XXIX Ikurriña	Bermeo	9-17
Play Off J2	Portugalete	9-18
XLI GP - XXXVII Bandera El Corte Ingles	Portugalete	9-18

Elkarrizketa sakonaren atalean astero protagonista batekin solasean arituko da Imanol Arruti, 20 bat minutuz.

Milaka jarraitzaile dituen arrunaren inguruko gaurkotasuna ikusleei hurbiltzea xede duen emanaldian arraun elkarte guztiei tartetxo bat eskainiko zaie. “Bai, elkarteetara joango gara bertatik bertara ezagutzeko taldearen inguruko hainbat kontu. Kontu polita iruditzen zait sasoa prestatzeko lanean gogor aritu direnei erreportajetxo eskaintzea, ahaleginaren errekonozimendu gisa”. Azkenik, ikusleek arrunaren munduaren inguruko ezagupenak zabal-terik izango dute, bitxikerien atalari esker.

# irunero aldizkaria non eskura daiteke?

## **ANAKA**

ANAKAKO KASINOA  
KUTXA  
BURDINDEGIA (Kutxaren  
aldamenean)  
ANAKAKO AUZO ELKARTEA  
BIDASOAKO OSPITALEA

## **BELASKOENEA:**

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)  
BELASKOENeko AUZO  
ELKARTEA

## **ARBES eta PALMERA-MON- TERO**

VICTORIA TABERNA  
(Altzukaitz)  
LA AGRICOLA  
PALMERAko HAINBAT  
KAFETEGI-TABERNATAN

## **BEHOBIA eta ARTIA**

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-  
LA  
TRINKETE TABERNA (M<sup>a</sup>  
Juncal Labandibar kalea)  
AZKEN PORTU KIROLDEGIA  
KUTTUNA HAUR ESKOLA  
(Artiako Caro Baroja plaza)

## **ERDIALDEA**

HERRI JAKINTZA (Nafarroa  
hiribidea)  
BRASIL gozo-denda  
ELKAR liburu-denda  
OSKARBI Liburudenda  
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)  
KUTXA (Kolon)  
JUBILATUEN ETXEA (Luis  
Mariano)  
VIRGINIA kafetegia  
SIRIMIRI taberna  
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)  
KIOSKO 33 (Argentinari  
Errepublikari)  
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)  
GAZTE INFORMAZIO BULE-  
GOA (Foruen karrika)  
EUSKARA Arloa (Foruen karri-  
ka)  
ACUBI (Foruen karrika)  
IZOKINAREN KOFRADIA  
(Kale Nagusia)  
ARANO taberna  
MANOLO taberna  
SARGIA taberna  
AEK Euskaltegia  
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA  
MENDIBILGO MUSIKA  
KONTSERBATORIOA  
ARTALEKU KIROLDEGIA

## **DUNBOA**

TOMA PAN Y MOJA (S.  
Pedro)  
OSASUN ZENTROA  
KUTXA (Nafarroa hiribidea)  
ERKA (Salvador Etxeandia)  
ALDABE paper-denda

## **LAPITZE**

ANBULATORIOA  
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-  
koa.  
OGIBERRI (Serapio Mujika)  
EUSKADIKO KUTXA (S.  
Mujika)

## **MEAKA**

MEAKAKO Bizilagunen  
Elkartea  
ERROTAZAR  
OLA Sagardotegia

## **OLABERRIA**

ESTEBENEA taberna  
LABEKO ETXEA jatetxea

## **ALDE ZAHARRA**

UDAL EUSKALTEGIA  
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA  
(Larretxipi)  
EKT (Larretxipi, 12)  
KURPIL KIROLAK (Peña k.)  
HAZIA taberna (Peña kalea)  
ESKINA taberna  
EUSKADIKO KUTXA  
(Urdanibia)  
KULTURA Arloa  
(Ospitale Zaharra)

## **ANTZARAN**

NEKANE paper-denda  
Lekaenea

## **SAN MIGEL**

KOLON burdindegia  
(Hondarribia kalea)  
KUTXA (Zubiaurre)  
EUSKADIKO KUTXA  
(Zubiaurre)  
SAN MIGELeko AUZO  
ELKARTEA (Luis de Urantz,  
24)  
ATREZZO (Geltoki kalea)

## **SANTIAGO**

AGUIRRE okindegia (Junkal)  
CANON (Santiago k.)  
SANTIAGO AUZO ELKARTEA  
BIKOTE (Erromes plaza)

## **URDANIBIA**

TANDEM kafetegia

## **KATEA**

KATEKO AUZO ELKARTEA

## **LARREAUNDI**

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)  
AUZO ELKARTEA  
(Iñigo Loiolako)  
LARRARTE Harategia  
(Eguzkitzaldea, 17).

# Alarde tradizionala 2011



Belasko Eneko kantinera San Juan plazan.



Ezkerrean, Jeneralak kapitainei dei egin zienekoa. Eskuinean, Banda bere kantinerarekin.





Ezkerrean, Bidasoa konpainiak udaletxean Irungo bandera jaso zuenean. Eskuinean, tropa Junkal eliza aldera.



Artilleriako bateria San Juan plazan. Eskuinean, Junkal plazatzoko geldialdian soldadu gazte taldetxo bat, atsedena hartzen.



higer bidea, 6-  
20280  
hondarribia.  
gipuzkoa  
t(34) 943 64 27 12

[arrokaberri@arrokaberri.com](mailto:arrokaberri@arrokaberri.com)  
[www.arrokaberri.com](http://www.arrokaberri.com)







Goian eta behean, ikusleak Artalekun.  
Behean, eskuinean, eskopetariak Kolon  
ibilbidean.



Ventaseko kantinera Junkal plazatzxoan.



**gesAR**  
gestoria ARANA  
consorcio de seguros

asesoria aholkularitza  
integral integrala  
ingenieria injenieritza  
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.  
IRUN

**Tel: 943 666 050**

Fax: 943 618 075

[gestoria.arana@garana.com](mailto:gestoria.arana@garana.com)

# Alarde publikoa 2011



Hatxeroak, Arrankada egin ondoren, San Juan plazara sartzen. Eskuinean, jenerala, troparen kargu eginda.



Ama Xantalen konpainia, San Juan plazara sartzen.



Artilleriako kantinera, agurtzen.



Ezkerrean, Danborrada Kale Nagusian behe-  
ra arratsaldean. Goian, ikusleak.

Argazkiak: Joxean Jaramago.

# Inauguratu da Gipuzkoako kultur ondare higigarriaren zentroa

**J**oan den ekainaren 20an inauguratu zen Gordailua, Gipuzkoako kultur ondare higigarriaren zentroa. Irungo Arretxe gainean kokaturik dagoen eraikin berriak 55.000 pieza baino gehiago gordeko ditu: Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilduma propioak, San Telmo museoaren funtsak, Kutxaren kolekzioaren zati bat, bai eta Gipuzkoako gordailu arkeologiko eta paleontologikoa ere. Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak inauguratu zuen 8.450 metro koadro erabilgarri duen eraikina. Ekitaldian, Lohitzune Txarola Batzar Nagusietako presidentek, Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara foru diputatuak, Jose Antonio Santano Irungo alkateak eta kultur munduko hainbat ordezkariak ere parte hartu zuten. Gordailua proiektu estrategikoa da; gure lurraldeko ondare higigarriaren arloa ikuspegi berritzaile batetik ordenatu eta artikulatzea du helburu, eta ondare higigarria berreskuratzea, zaharberritu, bildu eta zabaltzea du zeregin nagusi.



Gordailuak 8.450 metro koadro ditu.

## Puntako eraikina

Jose Leon Lasarte eta Pedro Astigarraga arkitektoen lan hau, kanpoaldetik ikusita, eraikuntzari originaltasuna eta izaera berezia ematen dion altxairuzko kaiola da.

Erdi sotoan, biltegiak gain, zaharberritzeko tailerrak kokatuko dira. Beheko solai-

ruan erabilera anitzeko aretoa (erakusketak antolatzeko), areto didaktikoa, dokumentazioarena eta ikertzaileentzako izango dira.

Goiko solairuan, beste bildumez gain, Gipuzkoako gordailu arkeologiko eta paleontologikoa kokatuko da.

## Bisita irekiak

Gipuzkoako kultur ondare higigarriaren zentroa taldean bisitatu ahal izango da.

# Txingudi Ikastolako idazle gaztetxoek sariak jaso zituzten



Sari banaketa ekitaldian parte hartu zuten guztien argazkia.

Txingudi Ikastolako bigarren hezkuntzako 400dik gora ikasleak institutuak antolatu dituen Literatur Sormenaren sarietan parte hartu dute 2010-2011 ikasturtean zehar. Joan den ekainaren 15ean lehiaketako finalistak eta irabazleak areto nagusian elkartu ziren, egindako lanengatik sariak eta txaloak jasotzera. Idazle gaztetxo hauen obra guztiak biltzen dituen liburua eskuratu zuten, Txingudiko Guraso Elkartearen diru-laguntzaz argitaratua.

Honako hauek ere esku hartu zuten: Edu Zabala Hizkuntza teknikariak, Cristina Odriozola Euskara Mintegiko buruak, Gemma Gurutxaga Ingeles Mintegiko buruak, Javier Alegre ikastetxeko zuzendariak, Silbestre Balerdi Guraso Elkarteko lehendakariak eta Irungo Udaleko Euskara teknikari Maite Etxebestek. Aurkezpenean Edu Zabalak adierazi zuen “ikastolako idazleak eta idazteko zaletasuna bultzatzea dela Literatur Sormena Sarien helburua, merezi duela badakigulako”.



Literatur Lehiaketetako lanak liburu  
batera ekarri dira.

### Lehiaketak

Ebaluaketa bakoitzean lehiaketa bat antolatzen da. Lehenengokoan, ASMA izenburukoan, liburu batetik hartutako zatitxo pare batetik abiatuz, ikasle-idazleei dagokie sormenaren lumarekin bere bertsioa idaztea. Bigarren ebaluaketan ALGARAKA deritzon lehiaketa aurrera eramaten da. Argazki barregarri baten inguruan idazlan bat sortzean datza. Azkenik, BERTSO-PAPEREN txanda da; aurten euskara eta Korrika gaiaren inguruan bi bertso zortziko txikian sortzea izan dute erronka.

Gainera, KRONIKAK norgehiagoka ere antolatu da, non euskarazko nahiz ingelesezko produkzioek parte hartu duten.

Bestetik, Literatur Sormenaren Sarietako liburuarekin batera, ekainean *Azken Hitza* aldizkaria banatu zitzaizen ikasleei, hauen idatzizko lanak zein lan grafikoak biltzen dituen.



## 2010-2011 IKASTURTEKO SARITU GUZTIAK

**Irabazleak:** Andoni Agirre (1. D), Sara Nieto (2. A), Xabier Lopez de Pariza (3. C), Gorka Urdin (4. D), Aitor Arzuaga (1. D), Telmo Gartzia (2. E), Erika Benitez (3. D), Elda Etxebeste (4. D), Oier Novales (1. B), Beñat Rekarte (2. F), Leire Mujika (3.), Alex Calderon eta Jon Izeta (3. B), Ania Garcia (1. maila), Marta Garcia (1. maila).

**Finalistak:** Garazi Estonba (1. B), Telmo Gartzia, (2. E), Malen Arzak (3. E), Aitor Gonzalez (4. D), Aizpea Gonzalez, (4. D), Sarai Rivas (2. A), Ane Zufiaurre (3. B), Maialen Oiartzun (4. B), Iker Rekarte. **Aipamen berezia-** (1. B), Estitxu Ormaetxea (2. B), Josu Goñi, Aritz Aizpiolea.

**Aipamen berezia-** Mikel Mindegia.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,....

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net



# Luis Mariano Kantu Lehiaketa, uztailaren 13tik 16ra

Guztira 27 abeslari liriko gazte-  
tek izena eman dute Luis  
Mariano XI. Nazioarteko Kantu  
Lehiaketan parte hartzeko.  
Amaia KZn burutuko da uzta-  
laren 13tik 16ra, Irungo  
Udalak antolatuta.

Bi urtean behin antolatzen den lehiaketa honen  
xedea lirikaren munduan sartzeko dohainak  
eta balio artistikoak dituzten abeslari gazteei  
aukera ematea da.

2011ko edizioan parte hartuko duten etorkizun  
oparoko kantari gehienak emakumeak dira,  
horrelako lehiaketetan ohi denez. Jatorriari  
dagokionez, zenbait autonomia erkidegotako  
parte-hartzaileak izango dira, tartean, Euskadi,  
Nafarroa, Madril, Katalunia, Valentzia eta  
Kantabriakoak. Atzerriko herrialde hauetatik  
ere etorritakoak izango ditugu kantari Irungo  
Amaia KZn: Estatu Batuak, Peru, Hego Korea,  
Suitza eta Argentinatik.

Lehiaketa uztailaren 13an (lehen kanporake-  
ta), 14an (bigarren kanporaketa), 15ean (fina-  
lerdia) eta 16an (finala) egingo da. Saio guz-  
tiak Amaia KZn egingo dira, 19:00etan, eta  
jende orori irekiak izango dira.



## Sariak

- Gizonezkoen Arteko ahots onenaren 1. saria: 6.000 euro
- Emakumezkoen Arteko ahots onenaren 1. saria: 6.000 euro
- Gizonezkoen Arteko ahots onenaren 2. saria: 3.000 euro
- Emakumezkoen Arteko ahots onenaren 2. saria: 3.000 euro
- Epaimahaiaren sari berezia gazte pro-  
mesa hoberenari: 3.000 €
- Luis Mariano saria: Luis Mariano Lirika  
Elkarteak emana. Saria kontratu bat izan-  
go da, elkarte horren opera-lanetakoren  
batean hurrengo bi denboralditako batean  
paper bat interpretatzeko

# Antzinako Egiptori begirada bat emateko parada Oiasso Museoan

Datorren azaroaren 20ra arte Oiasso Museoak antzinako Egiptoko zibilizazioaren lagina erakutsiko du dokumentu eta artelanen bitartez. “Egipto, begirada erromantikoa” izenburuko erakusketa bi euskal bildumagileren ekimenez gauzatu da. Hala, Oiasso Museoarekin harremanetan jarri ziren, proposamena egin aldera eta, Erromak Egiptorekin izan zuen harremana kontuan hartuta, baiezko erantzuna jaso zuten. Bildumagileen ondareari San Telmo Museoko nahiz Bilboko Euskal Museoko materiala gehitu zaio.

## Hiru atal

Aurrena antzinako Egiptori buruzkoa da. Zenbait pieza arkeologikoz osatua da, tartean sarkofago baten zati bat. Bigarrenak, XVIII. mendean



Sarkofago baten zati bat ikus daiteke.

europarrek egin zituzten espedizioak erakusten ditu, litografia, liburu, mapa eta argazkien bitartez, besteak beste. Azkenak Egipto eta Erroma lotzen ditu. Kultura haren

aztarna bat aurkitu zen Oiasson: Higerren agertu ziren brontzeen artean marinelen zaindari Isis egiptoar jainkosaren irudi bat dago, hain zuzen ere.

**pickin<sup>2</sup>pack**  
irun

Bulegoko materiala - Artxiboa - Paper gaiak -  
Altzariak - Ordenagailuak -  
Zerbitzu tekniko propioa -  
Enpresei zuzendutako mantenu zerbitzu integrala

*Material de oficina - Archivo - Papelería  
Mobiliario - Ordenadores  
Servicio técnico propio  
Servicio de mantenimiento integral a empresas*

Lope de Irigoyen, 2 - Irun - [www.pickingpc.com](http://www.pickingpc.com) - 943 466 037

## Zer da frustrazioa? Beharrezkoa ote da?

**Frustrazioa helburu bat lortu ezin dugunean sortzen den emozioa da: zerbait lortu nahi dugunean, baina ezinezkoa denean.**



Desatsegina da oso; baina... noiz uste duzue dela beharrezkoa edo baliagarria? Beti? Ipin dizagun adibide pare bat,

- Mikelek 2 urte ditu eta goizeko 12etan goxokiak jan nahi ditu. Amak ezetz esaten dio, bazkaltzeko ordua da eta. Haurra negar eta negar hasten da, oiuhu-

ka; bere burua lurrera botatzen du, goxokiak oraintxe nahi dituelako.

- Maitanek 6 urte ditu eta itzulipurdiak egiten ikasten ari da; baina ez du lortzen, eta negarrez ari da: “ezin dut lortu, oso txarra naiz, ez dut inoiz ballet taldean sarzterik izango!!!!!!...”

Zein kasutan iruditzen zai-zue ona dela haurrak frustrazioa sentitzea?

Lehen kasua gurasook edo hezitzaileok ditugun ohitura edo arauekin loturik dago. Kasu honetan, haurrak frustrazioa sentitzea ona izan daiteke, nahi duen guztia lortu ezin duela ikasi behar duelako. Guraso edo





hezitzaileok gure arauak ditugu eta arau horiek mantentzea beharrezkoa da. Arau hauek haurarentzat (edo nerabearentzat) mugak dira, eta haren jokaerak nondik nora joan behar duen ikasten laguntzen diote. Guraso edo hezitzaileok EZETZ esan behar izaten dugu askotan, haurra frustratuz; haurrek, ordea, beharrezkoa dute soziabilizatzeko, hau da, gure gizartean nola jokatu behar duten ikasteko.

Hala ere, kontutan hartu behar dugu EZETZ esatea bezain garrantzitsua dela BAIETZ esatea, eta ahal denean baietz esatea funtsezkoa dela haurraren garapen sozioafektiborako. EZETZ eta BAIETZ horien orekan, frustrazioak eta baieztatze-ko beharrak oreka bilatu behar dute, eta epe luzera errazago egingo zaio haurrari ezetzak onartzea:

- Goxokiak larunbatetan jaten ditugu, eta astean zehar, ez.
- Bazkaldu ondoren familian 10 minutu hizketan geratzen gara, eta gero ikus dezakegu telebista.
- Hortzak garbitu eta pijama jarri ondoren elkarrekin 10 minutuz ipuina irakurriko dugu, lo egin baino lehen.

Ahal dugun guztietan inorentzat ondorio txarrik ez badago, BAIETZ esateak merezi du: parkera joan gaitezke? Mikel gurera etor daiteke? BAI!!!!!!!!!!!!

Arau hauek gurasoen balioekin loturik daude, eta garrantzitsua da beti berdinak izatea. Ez dugu aldakorrak izan behar (gaur ohera 9tan, bihar 11etan... ). Izan ere, beti antzera egiten badugu, haurrak aurreikus dezake egin behar duena. Beraz, errutinak izatea lagungarria da,



haurrak arauak edo legeak onar ditzan.

Bigarren adibideari helduta, Maitanek zer-bait lortu nahi du; baina hori lortzeko behin eta berriro saiatu behar du, esfortzua behar du. Honetarako motibatu eta baloratu behar dugu, frustratu beharrean. Maitanek Gipuzkoako ballet taldean sartu nahi badu eta lortzerik ez badu, frustrazioa sentituko. Dena dela, helburua aldatuta, frustrazioa bidera dezake.

Helburuak ez luke irabaztea edo gauzak berehala lortzea izan behar. Saiakera horretan beti egoten dira hobekuntzak; haurrak beti hobetu dezake, eta hori baloratzeko badugu esfortzuak merezi duela erakusten diogu. Ez ditugu gure helburuak (marrazkia egitea, futboleko jokatzeko...) lortu nahi onenak garela edo beste lagunek baino hobeto egiten dugula erakusteko, gu geu hobetzeko eta horrekin gozatzeko baizik. Jolastu ere, gozatzeko eta hobetzen saiatzeko jolastu behar genuke, ezta? NOR DA TXAPELDUNA? Saiatze hutsarekin ondo pasatzen duena!

Gozatu, lagunok: gauza asko ezin dugu lortu eta frustratuko gara; baina helburu apalagoak jarrita, zoriontsu senti gaitezke!!!!!!!!

*MAPI URRESTI ORTIZ*

[kuttun@kuttun.net](mailto:kuttun@kuttun.net)

*Egunetik-egunera orduen gorpilean idatzi zuen Xabier Letek 1968an. Ekaineko hainbat –egunetik egunera– orduren errotan ehotakoa duzu 2011ko uztailerako irun ditudan eleok.*

## Euskaldunok -eta Espainiako- demokraziaren paradigma

**E**lkarri, Lokarri eta Sortu izan ditut hizpide iragan berrian. Gorka Espiauren *Pluja Seca/Euri lehorra* dokumentala ere bai. Horiek, batetik. Bestetik, Xalbador eta Xala. Xalbador Aire bertsolaria eta Ives Salaberri pilotaria, alegia. Buruz buruko finalaren afera tarteko. Orain, berriz, sarrerako hitzek igarri bezala, Xabier Leterekin akordatu naiz, baita *Titin* pilotariarekin ere, Augusto Ibañezekin alegia. Pilotariak eta poetak parekatu zaizkit, hara. Eta hala, nire eguneroko orduen errotan zekale andana ehotut, poetaren antzo, orduen gorpilean.

Gorka Espiau elkarriketatu ostean Irungo Amaia Kultur Zentroan sartuta ginen biok, *Pluja Seca* dokumentalaren inguruan. Jende aurrean jardun genuen biok ala biok. Ederki joan zen, jende multzoa ere hala joan zelakoan joan ginen. Iraganak iragan, etorkizuna dugu erronka. Dokumentalaz harago, bertan bizitakoaren hiru gogoeta ekarri ditut hona, nireak hirurak:

– Bildu efektuak Espainiako demokraziaren paladinak jokoz kanpo utzi ditu. Alegia, PSOE nahiz PP. Ez hauek bakarrik, ordea, baita ezker abertzaleko hainbat sektore ere. Eta, beraz, logikoa denez, euskal preso politikoak eta hauen senitartekoak barne. Bi aldeak ez ditut joko, ez sare berean kokatzen, horregatik.

PP eta PSOE ez daude eroso ETA partidaz kanpo dagoenean. Beraz, gogor saiatuko dira ETA partidara itzul dadin. “Aliatu” erraza eta egokia dute, erraza dutenez.

Nola sartu jokoan, ordea, jokoz kanpo geratu diren ezker abertzaleko sektoreak?



– Heldu den hamarkada erabakigarri honetan, gatazkaren parametroak aldatu daiteke behingoz. Baina, ez gaitezen tronpa, gatazkak iraunen du betiere. Gizateriaren bilakaera ikusirik “Bakegintza eta normalizazio politikoa” eufemismoa da. Ulertzeko, diot. Obama, Merkel, Sarkozy edo Berlusconiaren “Mendebaldeko demokrazia” eufemismoa den

legez, ETAren “borroka armatua” den legez...

Etor nadin gurera, baina, *Xala* hizpide izan nuen eta *Titin* izan dut orain. Azken udal eta foru hauteskundeetan atarian *Titinek*, kantxatik harago joanez, “zur eta lur” utzi zuen hainbat pilotazale. *Titin* PPren ize-nean aurkeztu baitzen Errioxako hiriburuan.

“Ez da erraza irensten hori estimuan duzun kirolari batengandik”, hala sentitu dut nik inguruan. Baina, bestela da nik adierazi nahi dudana.

*Titinek* berak politikan parte-hartzeari garrantzia kenduz –ez da lehena, Panpi Ladutxeren kasu bera ezagutu dugu Iparraldean– hauxe esan zuen:

–Ni ez naiz politikaria, ni ez naiz politikan arituko.

Augusto Ibañez Logroñoiko udal hautetsia da, hala xe hautatu baitute herritarrek demokrazian. Horra Espainiako demokraziaren paradigma. Espainiarrek politikan aritzen ez diren gobernariak hobesten dituzte. Eta guk, euskaldunok demokrazia horretan jokatzen dugu.

Horra pilatu dudana irin zakua. Barkatu olo eta gari nahas-mahas hau. Ondorioak? Norberak zakua altxa dezan. Edo nork bere zakua altxa dezala.

**MIKEL ASURMENDI**

# Ez denaren magiaz menturatuak

**E**z dena ere badela diosku Karlos Gorrindo idazle gernikarrak. Gazteak hartu ditu gomutan gazteentzako nobela hau (at)ontzean. San Joan egunean idazten ari naiz, bezperan, bart, espiritu gaiztoak sutan erre ostean.

Espiritua egon badago. Espirituak “ez dena ere badela” agertzen digu sarritan. Baga, biga, higa, laga, boga. Horiexek nobela osatzen duten atal buruak. Alta bada, boga eta gero, sega ere imajinatu dezakegu, sega eta herio, bi-biak elkarren eskutik datozela.

Eta badoaz, joan ere, Uxue protagonista buruan buru, Hegoaldeko (demagun Bizkaiko) izen gabeko herri batetik gure Iparraldera, Zugarramurdira lehenik, Oiartzunen gaindi, Ainhoara eta Sarara gero. Elene eta Astrid lagun kuttunekin batera, Iker eta Koldo ere badoaz. Baita arerioak dituzten bestetzuk ere, Santos eta Fernan, berbarako. Irakasleak ere eurekin doaz, Juanjo nola Erkuden. Bestalde, Uxuek berak ez du une goxo bizi etxean.

Mundu normal batetik mundu normal batera joan dira txangoz. Baina bestela ere irudikatu dezakegu mundua: kaosean bizi den mundutik mendiko baretasunean bizi den mundura aldatu dira gazteak. Herri honetako muga geografikoak –edo orbainak– alabaina zedarrituko ditu euren gomutak eta gogoak.

Jomugan ediren duten lekua ez zaie arrotz egin neska-mutilei. Ez horixe. Euren hizkuntza-



**Liburua:**  
*Ez dena ere bada*  
**Egilea:**  
Karlos Gorrindo  
**Argitaletxea:** Desclée

ren aldaera bat entzunagatik, gaueko mundua ezagutu dute, gauekoa eta harpeetako mundua. Izanez ere, istorioko protagonista bilakatuko den amonak dioenez, erreka, andra edota sorgin haizea, gure haizea da, guztiona. Edo bestela esanda, haizea gure da.

–Indartsu dabil gure haizea– dio amonak, hiru nesken harridurako.

Eta istorioaren haizean, historiako pertsonak ezagutu dituzte protagonistek: Bernard hala nola Pedro. Agerre Azpilikueta edota Goienetxe jaunak, *Axular* nahiz *Matalaz*. Eta beren arteko solasetik hauxe ikasiko dute nerabeek.

– Ez dugu gauza handirik, jakina, aizkorak eta igitaiak baino ez; baina arrazoia gurea dugu.

... – Zuzen aritzea eta justizia ez datoz inoiz bat, baina. Ez dena ere bada, beraz. Horretaz, ba-tzuetan, gure ingurumartik atera ondoren jabe-tzen gara, dosi txikian bada ere. Bestetzuetan, inora atera gabe, liburuetatik ez dena ere badenez jabetzen gara. Horra ikaspena!

San Joan gaua, San Joan sua eta Akelarrea. Axular eta Matalaz ez dira gurekin jada. De Lancre eta Torquemada ere ez dira gurean; baina kasu, ez dena ere bada.

Espiritu gaiztoak sutan erreak, Ez dena ere bada irakurri eta denaren magian mentura zaitzte. Kasu espirituekin, halere, ez dena ere bada-eta.

**MIKEL ASURMENDI**

# k u l t u r a g e n d a

## Uztailaren 13tik 16ra

- Luis Mariano  
Nazioarteko Kantu  
Lehiaketa, Irungo Udalak  
antolatuta.

## Meatze tren

- Meatze trenak bisita-  
riak Irugurutzetako mea-  
tzeen barrualdea ezagu-  
tzera eramaten ditu. 4  
urteik gorako haurren-  
tzako ekintza. Trena  
Oiasso Museotik irteten  
da asteartetik ostiralera  
11:00etan. Prezioa: 3  
euro. Iraupena: 120  
minutu.  
Tel: 943 63 93 53

## Tailerrak museoan

- Oiasso Museok  
*Egiptoko misterioak* izen-  
buruko tailerrak burutuko  
ditu udan zehar.  
- Ebaki, modelatu, itsasi  
eta margotu... hara,  
Nafret da eta!  
- Osirisen mitoa eta  
Hildakoan Liburua.  
- Senet-ean jolastuko  
gara?  
-ldazkera hieroglifikoa

## Erromatar Jaialdia

Oiasso Museok DIES  
OIASSONIS Erromatar  
Jaialdia antolatu du.

### - Uztailak 16:

18:00etan, Museotik,  
NAVIGIUM ISIDIS, Isis  
jainkosaren prozesioa.  
Ondoren, Dunboa  
ubidean, SOLEMNISIMAS  
PRECES, itsasontziaren  
uretaratzea.

- 20:30ean, *Miles Glorius*  
antzezlanaren Museoko  
plazatxoan.

**Goizez eta arratsaldez,** Museoan, erromatar jokoak.  
(Sarrera doan)

### - Uztailak 17:

12:00etan: Zabaltzan, *Augustus*, Erromako lehen  
enperadorea. Museoan, MUNERA GLADIOTA,  
gladiadoreen borroka. Kalejira.

13:15ean, Museoaren inguruetan, erromatar legioak.

14:00etan, Museoan, SIMPOSIUM, erromatar menuko  
bazkaria.

18:00etan, Junkal plazatxoan, gladiadoreen borroka.

19:00etan, Dunboa ubidean, RES NAVALIS,  
erromatarren garaiko ontzien errepliken nabigazioa.

19:30ean, Junkal elizan, erromatar musika-kontzertua.

**Goizez eta arratsaldez,** Museoan, erromatar jokoak,  
kultur ekintzak, arkeologia esperimentaleko tailerra  
(haur nahiz helduei zuzenduak) eta erromatar  
gastronomia.



## Plan Nagusiaren erakusketa

**Maiatzak 1 -  
Abuztuak 18**

Udalbatzak Hiri  
Antolamendurako  
Plan Nagusiari  
hasierako onspena  
eman dio.



Dokumentuaren inguruko erakusketa publikoa  
datorren abuztuaren 18ra arte zabalik egongo da  
San Juan Arria plazako 4. zenbakiko udal bulego-  
tan.

Hiritarrek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte,  
baita kontsultak egin edo zalantzak argitu ere.

Ordutegia: Ast-ost.17:00-20:00. Larunb.: 10:00 -  
13:0.h

## Jam Session



Tunk! aretoan, asteaz-  
kenero 22:00etatik  
01:00era, Jam Session  
estilo guztiei irekita.  
Tunk!-ek musika-tres-  
nak uzten dizkizu.  
Etorri eta jo besterik  
ez duzu egin behar.  
Edari bat dohainik  
musikari guztientzat.

ZATOZ!

## Egipto Oiasso museoan



EGIPTO: BEGIRADA ERROMANTIKOA  
erakusketa.

Noiz: ekainaren 24tik azaroaren 20ra.

Non: Oiasso Museoan

Ordutegia: asteartetik larunbatera, 10:00etatik  
14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

## Arte azoka Ficoban

**Zer:** Arte garaikidearen ARTEANDO azoka.

**Non:** FICOBAN

**Noiz:** 2011ko uztailaren 21etik 26ra.

Lehenengo edizio honetan ARTEANDO azokak 50 galeria-  
tik gora aurkeztuko ditu, nazionalak nahiz atzerrikoak.



Audi



Orrialde hauetako informazio gutzia, zabalago, [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.

**Lehiaketak**



- GALDAKAOKO JAIE TAKO KARTEL LEHIAKETA.  
Baldintzak: Edonork parte har dezake. Epea: Uztailak 15.



Kontsulta ezazu informazioa [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) web orrian.

- EUROPAR BATASUNEKO 3 BEKA. Deialdigilea: Nazio Batuen Erakunde an Europar Batasuneko ordezkartiza. Edukia: EBko ordezkartizak urtero ordaindu gaabeko 3 beka eskaintzen ditu. Baldintzak: Ingeles maila jasoa eta lizentziatura edo gradu titulua. Epea: Uztailak 15.

**Ikastaroak**



- HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN. Ikastaroren bat kontratatu aurretik interesgarria da jakitea enpresak edo agentziak zerbitzu fidagarriak ematen dituen.

- ATZERRIAN IKASTAROAK EGITEKO BEKAK, EUSKO Jaurlaritzak ematen dituenak: kontsulta ezazu aipatu web orria.




**Bekak eta praktikak**



- GIPUZKOAKO ENPRESETAN PRAKTIKAK. 32 urte baino gutxiago badituzu eta lanean hasi nahi baduzu, Novia Salcedo Fundazioak lanbide praktikak eskaintzen dizkizu Gipuzkoako enpresetan.

**harpidetza**



Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adierazteko nahi baduzu, eska lehiaketa, eta astero bidaliko dizugu informazioa zure etxera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZENAK.....  
 HELBIDEA.....  
 P. K. HERRIA.....  
 POSTA ELEKTRONIKOA.....

**gazte**  
informazioa

[www.irun.org](http://www.irun.org)  
 Tel 943 506 444  
 943 506 440

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pidecelo y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

## Solidarioak



### KRISIALDITIK IRTENGO GARA, BAINA NOLA?

Elkar lagunduz! Gipuzkoa Solidarioa ekimenaren bidez lagunza eskaini eta eska dezakezu.

## Osasun sexuala

Espainiako Injuvek osasun sexualari buruzko webgune eta zentro berria abian jarri ditu. Helburua informazioa eta prebentzioa hobetzea da nahi ez diren haurdunaldi kopurua eta sexu organo bidezko gaixotasunak murrizteko.



EZAGUTU NAHI?

[www.sexualidadinjuve.es](http://www.sexualidadinjuve.es)

EZ EGIN ZALANTZA, SAR ZAITEZ TXATEAN!

## Idatzi abantailak!!



EGIN EZAZU KLIK TXARTELEAN ETA LORTUTAKO ABANTAILAK IDATZI, BESTE GAZTEEK JAKIN DEZATEN NON LOR DITZAKETEN DESKONTURIK ONENAK!

## Udako ekintzak Gaztelekuan

**UDAL GAZTELEKUAK 14-18 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT PRIMERAKO JARDUERAK ANTOLATU DITU!**

**UZTAILAK 14:** PADDLE - SURF HONDARRIBI

**UZTAILAK 21:** HERNANIKO IGERILEKURA

**UZTAILAK 28:** ARDITURRIRA BIZIKLETAZ - IGERILEKUA

[gazteleku@irun.org](mailto:gazteleku@irun.org) [www.irun.org/gazteleku](http://www.irun.org/gazteleku)

Telefonoak: 943.636826 - 660 685001







**Biltegi eta bulegoak:**  
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

**Dendak:**  
San Francisco, 15 - 20002 Donostia  
San Francisco, 24 - 20002 Donostia  
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia  
Isabel II, 15 - 20011 Donostia  
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria  
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain  
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara  
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

**Erka Osagai Elektrikoak S.L.**  
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea  
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48  
20304 Irun



**- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.**  
**- Lanpara erakusketa.**